

A P - 4.HE / 1.eredua

1.- Hauta ezazu aukera zuzena.

Esan dezagun, , orain arte aipatu ditugun arauak, epe laburrean izango diren lege aldaketak direla medio, zentzu gutxi izango dutela etorkizunean.

- a) batez ere
- b) bide batez
- c) bene-benetan
- d) berariaz

2.- Aukera ezazu egokiena maila jasoko testu baterako.

- a) Batzuek esaten dute hazienda lokal delakoan arazo nagusia dela zerga berriak ezartzeko eskumen falta eta, baita ere, aipatutako zerga horiek kudeatzeko behar den gaitasuna ez edukitzea.
- b) Zenbaiten ustez, toki ogasunen arazo nagusia zerga berriak ezartzeko gaitasun falta da eta, horrekin batera, zerga horiek kudeatzeko gaitasunik ez izatea.
- c) Zenbaiten ustez, udaletxeetako ogasunen arazorik behinena zerga berriak ezartzeko gaitasun falta da eta zerga horiek kudeatzeko gaitasunik ez izatea ere bai.
- d) Batzuek esaten dute toki ogasunen arazorik behinena zerga berriak ezartzeko gaitasun falta dela eta zerga horiek kudeatzeko gaitasunik ez dagoela.

3.- Bete ezazu hutsunea esamolde egokia aukeratuta.

Administrazioaren egintza baten aurka epeak ez zituela ezagutzen aitortu zuen interesdunetako batek.

- a) errekurtsua sartzeko
- b) errekurtsua tartejartzeko
- c) errekurtsua egikaritzeko
- d) errekurtsua jartzeko

4.- Aukera bat EZ da ondo txertatzen hutsunean. Zein?

Batzordearen erabakiz, gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefizientea 1,56 izango da., zerga hau onartzen duen foru dekretu arauemailean xedatutakoaren arabera, eragiketa bolumenaren araberrako ponderazio koefizientea ezarriko da.

- a) Berebat
- b) Halaber
- c) Behinik behin
- d) Orobat

5.- Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.

Hirigintza batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio: Aitor Igartua Gómez jaunak aurkeztutako alegazioa udal teknikariak egindako txostenaren arabera ebaztea.

- a) udalbatzarrari
- b) udalbiltzarrari
- c) udalbiltzari
- d) udalbatzari

6.- Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.

- a) Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamar urtetan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.
- b) Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek hamar urtean egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.
- c) Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamarkadan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.
- d) Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamar urteetan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.

7.- Aukera ezazu ondorengo testuari ondoen egokitzen zaion izenburua.

“Babes ofizialeko etxebizitzaren arloan egon litekeen iruzurra kontrolatzeko helburuaz gain, planaren lehentasun nagusiak bi dira: babes ofizialeko etxebizitzaren ekoizpena haztea, batetik; eta hutsik dauden etxebizitzak mugiaraztea, bestetik. Bi arlo horietan 2002an eta 2003an lortu diren emaitzak ikusgarriak dira. Babes ofizialeko etxebizitzaren ekoizpenean, azken urteetan kopurua hirukoiztu egin da. Etxebizitza hutsak mugiarazteari dagokionez, *Bizigune* programa sendotu egin da eta oso emaitza onak lortu ditugu”.

- a) Iruzuraren eragina babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean.
- b) Etxebizitza planaren lerro nagusiak.
- c) Etxebizitza hutsen kopuruaren igoera.
- d) Babes ofizialeko etxebizitzaren ekoizpenaren hazkundea.

8.- Hauta ezazu aukera zuzena.

Preskripzioaren epea lege-urratzea egin eta biharamunean hasiko da zenbatzen., administrazio-prozedura hasten bada, ustezko erantzuleak horren berri izanik, urratzearen preskripzioa eten egingo da.

- a) Apika
- b) Alabaina
- c) Bederen
- d) Izan ere

9.- Zein da OKER dagoen esaldia?

Administrazioak,, ingumenaren aldeko politika ausartagoak egiteko konpromisoa hartu du datozen urteetarako.

- a) bere eskuko eskumena baliatuz
- b) bere eskuko eskumena erabiliz
- c) bere eskuko eskumenaz baliatuz
- d) bere eskuko eskumenaz erabiliz

10.- Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.

Administrazio prozedura batean jarduteko gaitasuna duten ordezkari bidez jardun dezakete.

- a) asmodunek
- b) interesdunek
- c) merezidunek
- d) eragindunek

11.- Aukera ezazu testuarekin bat datorren esaldia.

“Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zuzenbide publikoko entea izango da, nort asun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak. Lege honetan eta bere estatutuan xedatutakoaren arabera jardungo du; estatutu hori Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez onartu beharko da, Lehendakariordetzak proposaturik”.

- a) Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, lehendakariordeak proposatua denez, ezinbesteko lotura du herri-administrazioarekin.
- b) Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren dekretua lehendakariordeak proposatutako estatutu baten bitartez onartuko da.
- c) Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez du gaitasun publikoan eta pribatuan mugarik izango.
- d) Datuak Babesteko Euskal Bulegoa gaitasun publiko erabatekoa duen zuzenbide pribatuko entea da.

12. Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.

Askotan kritikatu izan zaio administrazioari ez duela behar adinako ahalegina egiten arindu eta errazteko.

- a) bilakabideak
- b) tramitabideak
- c) osapideak
- d) izapideak

13.- Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.

Norbait bere lanpostutik kendu behar baldin bada, izendapena egin duen organoaren arrazoituaren bidez egingo da.

- a) ebazkarri
- b) ebazkizun
- c) ebazketa
- d) ebazpen

14.- Aukera ezazu testuarekin bat datorren esaldia.

"Lan-merkatuari gagozkiola, Europan (beste leku batzuetan ez bezala, adibidez AEBetan) administrazioaren aldetik ezarritako arauketak oso garrantzitsuak izan dira, dela langileen alokairu minimoan, dela langileak kaleratzeko zailtasunetan edo lan-kontratu duinak bermatu nahian".

- a) Europako administrazioek lan-merkatuan ezarritako arauketaren ondorioetako bat gutxieneko soldata finkatzea izan da.
- b) Asiako Ekonomia Bilgunean (AEB), Europan ez bezala, ez dago lan-merkatuaren arauketa garrantzitsurik.
- c) Europan lan-kontratu duinak bermatzeko zailtasun handiagoak daude beste leku batzuetan baino.
- d) Ipar Amerikan, administrazioaren arauketaren ondorioz, langileak kaleratzeko zailtasunak Europan baino handiagoak dira.

15.- Aukera ezazu esaldi zuzena.

- a) Zenbat eta zorrozkiago alderatu bi lege horiek, gero eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
- b) Hainbat eta zorrozkiago alderatu bi lege horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
- c) Zenbat eta zorrozkiago alderatu bi lege horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
- d) Gero eta zorrozkiago alderatu bi lege horiek, hainbat eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.

16.- Aukera ezazu puntuazio-markak egoki jarrita dauzkan aukera.

- a) Teknologiaren eta pertsonen intimitatearen arteko tentsio horrek legearen esku-hartzea eskatzen du. Alde batetik garapen teknologikoari galga emateak ez dio gizarteari onik egiten, teknologiak aukera mugagabeak eskaintzen baititu gizartearen ongizatea hobetu behar dutenak, baina beste alde batetik, herritarrek beren intimitate pertsonala babesturik ikusteko eskubidea dute, gaur egungo teknologia informatikoak eskaintzen dituen aukerek ez bailukete intimitate hori gehiago murriztu behar.
- b) Teknologiaren eta pertsonen intimitatearen arteko tentsio horrek legearen esku-hartzea eskatzen du. Alde batetik, garapen teknologikoari galga emateak ez dio gizarteari onik egiten, teknologiak aukera mugagabeak eskaintzen baititu, gizartearen ongizatea hobetu behar dutenak; baina, beste alde batetik, herritarrek beren intimitate pertsonala babesturik ikusteko eskubidea dute, gaur egungo teknologia informatikoak eskaintzen dituen aukerek ez bailukete intimitate hori gehiago murriztu behar.
- c) Teknologiaren eta pertsonen intimitatearen arteko tentsio horrek legearen esku-hartzea eskatzen du. Alde batetik, garapen teknologikoari galga emateak ez dio gizarteari onik egiten. Teknologiak aukera mugagabeak eskaintzen baititu, gizartearen ongizatea hobetu behar dutenak. Baina beste alde batetik, herritarrek beren intimitate pertsonala babesturik ikusteko eskubidea dute, gaur egungo teknologia informatikoak eskaintzen dituen aukerek ez bailukete intimitate hori gehiago murriztu behar.
- d) Teknologiaren eta pertsonen intimitatearen arteko tentsio horrek legearen esku-hartzea eskatzen du. Alde batetik: garapen teknologikoari galga emateak ez dio gizarteari onik egiten, teknologiak aukera mugagabeak eskaintzen baititu, gizartearen ongizatea hobetu behar dutenak. Baina beste alde batetik: herritarrek beren intimitate pertsonala babesturik ikusteko eskubidea dute, gaur egungo teknologia informatikoak eskaintzen dituen aukerek ez bailukete intimitate hori gehiago murriztu behar.

17.- Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.

- a) Gabriel Langarika, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
- b) Hezkuntza batzordeburu Gabriel Langarikak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
- c) Gabriel Langarika Hezkuntza batzordeburuak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
- d) Gabriel Langarikak, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.

18.- Aukera ezazu esaldi zuzena.

- a) Trafiko arazo handiak izan dira joan den asteburuan, ez bakarrik sare nagusiko errepideetan, baita bigarren mailakoetan ere.
- b) Trafiko arazo handiak izan dira joan den asteburuan, eta ez sare nagusiko errepideetan, bigarren mailakoetan ere bai baizik.
- c) Trafiko arazo handiak izan dira joan den asteburuan, ez bakarrik sare nagusiko errepideetan, baizik eta bigarren mailakoetan ere.
- d) Trafiko arazo handiak izan dira joan den asteburuan, ez bakarrik sare nagusiko errepideetan, baina baita ere bigarren mailakoetan.

19.- Aukera ezazu hasiera egokia.

....., European politika bateratua ezarriko da pixkanaka, bai bisak emateko orduan, bai denbora-tarte labur baterako bizilekua hartzeko baimenak ematerakoan ere; era berean, mugetatik pasatzen diren pertsoneri nolako kontrolak egingo zaizkien zehazteko xedapenak ezarriko dira, eta, areago, muga horiek kudeatzeko sistema integratua ere ezarriko da.

- a) Kanpo-mugetako kontrol neurriak indartu arren
- b) Kanpo-mugetako kontrol neurriak leuntzearen
- c) Kanpo-mugetako kontrol neurriak saihestu arren
- d) Kanpo-mugetako kontrol neurriak indartzearen

20.- Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.

- a) Stanfordeko Unibertsitatean egin duten ikerketaren arabera, gaixotasunaren erruduna bakterio mota bat litzateke.
- b) Stanfordeko Unibertsitatean egin duten ikerketaren arabera, baliteke gaixotasunaren erruduna bakterio mota bat izatea.
- c) Stanfordeko Unibertsitatean egin duten ikerketaren arabera, dirudienez gaixotasunaren erruduna bakterio mota bat da.
- d) Stanfordeko Unibertsitatean egin duten ikerketaren arabera, gaixotasunaren erruduna bakterio mota bat da, beharbada.

21.- Aukera ezazu esaldi zuzena.

- a) Ez du zertan egia izan behar.
- b) Ez du zertan egia izan beharrik.
- c) Ez du zertan egia izan.
- d) Ez du zergatik egia izan beharrik.

22.- Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.

- a) Aurrerapen teknologikoen ondorioz, produktibitatearen hazkundera hain handia da, non prezioek behera egingo duten.
- b) Aurrerapen teknologikoen ondorioz, produktibitatearen hazkundera hain handia da, prezioek behera egingo dutela.
- c) Aurrerapen teknologikoen ondorioz, produktibitatearen hazkundera hain da handia, prezioek behera egingo dute.
- d) Aurrerapen teknologikoen ondorioz, produktibitatearen hazkundera hain handia da, ezen prezioek behera egingo baitute.

23.- Non dago "balio erantsi" OKER erabilia?

- a) Sateliteek egiten duten lanarekin alderatuta, ohiz kanpoko gertakariak ikusteko gaitasun horrek ematen dio balio erantsia astronautek egindako lanari.
- b) Bezeroekiko harremanetan euskara erabiltzen duen enpresek balio erantsia ematen diete produktuei, baldintza berdinetan gehiago eskaintzen baitute.
- c) Ezbeharrak jasandako ondasun baten ordez antzeko ezaugarriak eta errendimendu berdina dituen beste bat jartzeak dakarren balio erantsia aseguru etxeak ordaindu beharko luke.
- d) Foru Ogasunak batzorde bat eratu du balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioa kudeatzeko prozedurak berraztertzeko.

24.- Aukera ezazu esaldi zuzena.

- a) Epaimahaiari onartezina eta salatze modukoa iruditu zaio kideetako batek prentsari zenbait informazio ematea.
- b) Epaimahaiari onartezina eta salatze modukoa iruditu zaio kideetako batek prentsari zenbait informazio eman diola.
- c) Epaimahaiari onartezina eta salatze modukoa iruditu zaio kideetako batek prentsari zenbait informazio eman izana.
- d) Epaimahaiari onartezina eta salatze modukoa iruditu zaio kideetako batek prentsari zenbait informazio eman dioneko.

25.- Bila ezazu "iraungitze" hitzaren definizioa.

- a) Zerbaiten eragina edo parteen arteko lotura bertan behera uztea, aurrez ikusitako epea bukatu delako edo hura eragiteko gai ziren gertaera edo egintzetakoren bat gertatu delako.
- b) Irauten duenaren edo eteten ez denaren nolakotasuna.
- c) Toki batetik etorri eta beste batera joatea, bertan geratu eta finkatzeko inolako asmorik gabe.
- d) Egitura politiko, ekonomiko edota ideologikoen errotiko aldaketa, talde batek agintarien aurka joz, berauek egotziz eta boterea bereganatuz egin ohi dena.

26.- Aukera ezazu puntuazio-markak egoki jarrita dauzkan aukera.

- a) Hona hemen laburbilduta ikastaro honetan landuko diren gaiak; lehenengoa sexu-transmisioko gaixotasunek azkeneko urteetan izan duten bilakaera, bigarrena gaixotasun horiek zenbait taldetan duten egoeraren azterketa eta, azkenik, gaitz horien hedapena prebenitzeko estrategiarik eraginkorrenak zein diren adieraztea.
- b) Hona hemen laburbilduta ikastaro honetan landuko diren gaiak: lehenengoa, sexu-transmisioko gaixotasunek azkeneko urteetan izan duten bilakaera, bigarrena, gaixotasun horiek zenbait taldetan duten egoeraren azterketa, eta azkenik, gaitz horien hedapena prebenitzeko estrategiarik eraginkorrenak zein diren adieraztea.
- c) Hona hemen laburbilduta ikastaro honetan landuko diren gaiak: lehenengoa, sexu-transmisioko gaixotasunek azkeneko urteetan izan duten bilakaera; bigarrena, gaixotasun horiek zenbait taldetan duten egoeraren azterketa; eta, azkenik, gaitz horien hedapena prebenitzeko estrategiarik eraginkorrenak zein diren adieraztea.
- d) Hona hemen laburbilduta ikastaro honetan landuko diren gaiak. Lehenengoa: sexu-transmisioko gaixotasunek azkeneko urteetan izan duten bilakaera. Bigarrena: gaixotasun horiek zenbait taldetan duten egoeraren azterketa. Eta azkenik: gaitz horien hedapena prebenitzeko estrategiarik eraginkorrenak zein diren adieraztea.

27.- Zein da gaiaren aldetik desberdina den esaldia?

- a) Kultur ondarearen elementu asko ari dira galtzen agintari askoren axolagabekeriagatik.
- b) Agintariak kultur gaietan erakutsi duten zabarkeriagatik ezinezkoa izan da antzoki-sare egonkor bat sortzea.
- c) Gurea bezalako gizarte aurreratu batean ezin onartuzkoa da errepide berri bat egiteko lanengatik trikuharri bat galtzea.
- d) Egia da etorkizuna eraikitzeko erronkei aurre egin behar diegula, baina arbasoek utzi diguten ondarea ahaztu gabe.

28.- Non dago "pizgarri" OKER erabilia?

- a) Lanaren kantitateagatik edo kalitateagatik pizgarriak ordaintzen dira askotan, oinarritzko soldataren osagarri.
- b) Agintaritza ekonomikoak jarduera bat eragiteko (esportazioak bultzatzeko edo inbertsioak erakartzeko, adibidez) exentzioak, hobariak eta bestelako zerga pizgarriak erabiltzen dituzte.
- c) Errenta aitortpenetan etxebizitzan egindako inbertsioagatik % 15eko pizgarria izateko eskubidea du zergadunak.
- d) Produktibitatea gehitzeko oso ohikoak dira enpresetan produkzio pizgarri izeneko estimuluak (primak, esaterako).

29.- Aukera ezazu ondorengo testuari ondoen egokitzen zaion izenburua.

"Gaur egun badaude psikologo eta psikiatra klinikoak lan munduko arazoetan espezializatutakoak eta mobbing kasuak zehazten dituztenak. Mobbing kasu bat aztertzean, lehendabizi zein fasetan dagoen ikusi behar da. Aurreneko faseetan antsietate maila handia eta errudun sentipena nabari dira. Horien ondoren, ez oso denbora luzean, depresioa jasaten hasiko da biktima. Sintoma fisikoak ere badauzka mobbinga jasaten ari den pertsonak; nekea, adibidez, oso datu esanguratsua da".

- a) Psikologo klinikoen espezializazioa.
- b) Estresaren ondorioak lan munduan.
- c) Antsietatearen sintomak.
- d) Jazarpen moralaren sintomak.

30.- Aukera ezazu esaldi zuzena.

- a) Hiri hondakinen gaia aztertzeke bildu zirenen arteko batek hitza hartu zuen errauste planta arbuiauz eta erreferenduma egin dadin proposatuz.
- b) Hiri hondakinen gaia aztertzeke bildu zirenen arteko batek hitza hartu zuen errauste planta arbuiauz eta erreferenduma egin dadin proposatu zuelarik.
- c) Hiri hondakinen gaia aztertzeke bildu zirenen arteko batek hitza hartu zuen errauste planta arbuiauz eta erreferenduma egin dadin proposatzen.
- d) Hiri hondakinen gaia aztertzeke bildu zirenen arteko batek hitza hartu zuen errauste planta arbuiauzeko eta erreferenduma egin dadin proposatzeko.

ORDEZKO GALDERAK

31.- Badago esaldi bat besteen aldean baztertzeko modukoa dena. Zein da?

- a) Txinako barne produktu gordinaren hazkundeari begiratu besterik ez dago lehen munduko ekonomietara lasterketa-zaldi bat balitz bezala hurbiltzen ari dela ikusteko.
- b) Txinako barne produktu gordinaren hazkundeari begiratu besterik ez dago lehen munduko ekonomietara lasterketa-zaldi bat bezala hurbiltzen ari dela ikusteko.
- c) Txinako barne produktu gordinaren hazkundeari begiratu besterik ez dago lehen munduko ekonomietara lasterketa-zaldi baten moduan hurbiltzen ari dela ikusteko.
- d) Txinako barne produktu gordinaren hazkundeari begiratu besterik ez dago lehen munduko ekonomietara lasterketa-zaldi bat bailitzan hurbiltzen ari dela ikusteko.

32.- Non dago "kontu-ikuskaritza" OKER erabilita?

- a) Programa honen arduradunen arabera, Foru Aldundiek hirurogei enpresari eskainiko diete kontu-ikuskaritza zerbitzua, batez ere enpresa txiki eta ertainei.
- b) Kontseiluaren eginkizunen artean hauek nabarmendu behar dira: Kontabilitate eta Kontu-ikuskaritza Institutuko kontu-ikuskarrien erregistro ofizialean sartzeko aukera ematen duten gaitasun-azterketak egitea eta etengabeko prestakuntza-programak aurrera eramatea.
- c) Udalaren kontu-ikuskaritza atalari dagokio datorren urterako aurrekontu proiektuari azken ukituak ematea, ogasun batzordean eztabaidatzen hasi aurretik.
- d) Kudeaketa publikoan oso tresna baliotsua da kanpoko kontu-ikuskaritza gastu publikoa arduraz zuzendu dadin eta eraginkorra eta egokia izan dadin bermatzeko. Hala ere, eta kanpo-ebaluazioko lan hauen baliagarritasuna gehienek onartu arren, kontu-ikuskaritzen hedapen, irismen eta prozedurak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera.

A P - 4.HE / 1.eredua

ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	B	2.	B	3.	D	4.	C	5.	D
6.	A	7.	B	8.	B	9.	D	10.	B
11.	C	12.	D	13.	D	14.	A	15.	C
16.	B	17.	A	18.	A	19.	D	20.	A
21.	C	22.	B	23.	C	24.	C	25.	A
26.	C	27.	B	28.	C	29.	D	30.	D

ORDEZKO GALDERAK

31.	D	32.	C
-----	----------	-----	----------